


OSPITALE ERAIKINAREN ENERGIA ZIURTAGIRIA



ESIk amaitu egin du ospitale-eraikinaren energia-ziurtagiria lortzeko prozesua, Eusko Jaurlaritzak egindakoa. Azken emaitza eraginkortasuna neurtzen duen etiketa ofizial bat da, zehazki, energia primario eta ez berriztagarriaren kontsumoa (kWh/m² urtean) eta CO₂ igorpenak (kg CO₂/m² urtean).

Ospitaleak ziurtagiria eskuratzeko prozesua 2014ko apirillean abiarazi zen eta 2014ko azarora arte iraun zuen, orduan egin baitzuten ziurtagiri ofiziala.

Hona hemen lortutako etiketa:

Energia primarioko kontsumoaren adierazlea eraginkortasun txikieneko eskalan dago (G); dena den, kontuan hartu behar da 1955ean eginiko eraikin baten balorazioa dela, eta beraz, Eraikuntzaren Kode Teknikoa baino askoz zaharragoa den araudi baten menpe zegoela. Hala, energia-eraginkortasunaren inguruko orduko eraikuntza-eskakizunak eta egungo parametroak oso ezberdinak dira.

CO₂ igorpenen adierazlea askoz positiboagoa da (D), funtsean, ahalegina egin delako energia sortzeko sistema eraginkorretan inbertitzeko, adibidez, energia-kantitate handi samarra berreskuratzen duen kogenerazio-plantan. Horren bidez, CO₂ kantitate handia atmosferara igortzea ekiditen da.

Energia-kontsumoa neurtzea

Eraikinen energia-ziurtagiria egitea legezko eskakizuna da 235/2013 Errege Dekretua onetsi zenetik aurrera. Ziurtagiria eraikin baten energia-eskaera asetzeko behar den energia-kontsumoa adieraztean datza, ohiko funtzionamendu- eta okupazio-baldintzetan, eta energia hori ekoizteko igorriko litzatekeen karbono dioxidoaren (CO₂) kantitatea ere adierazten du. Ziurtagiria bi adierazleren bitartez kalifikatzen da, zazpi letrak osatutako eskala batean: G letratik hasita (ez hain eraginkorra) A letrara artean (eraikin eraginkorragoa).

Honatz kalifikazioan zehazten diren adierazleak:

- Energia primario eta ez berriztagarriaren kontsumoa, kWh/m² urtean
 - CO₂ igorpenak, kg CO₂/m² urtean



Adierazleen balioak lortzeko, gure eraikinaren energia-eskaera asetzeko beharrezkotzat jotzen den energia-kontsumoa alderatu behar da 2006an kaleratutako Eraikuntzaren Kodeko HE atala (Energia aurreztea/Eskaera mugatzea) zorrotz betetzen duten eraikinetan beharko lizatekeen kontsumoarekin.

Bi balio horien arabera, letra jakin bat lortzen da.

Eraikinak aztertzea

Ziurtagiria eskuratzeko, eraikineko ingurutzaille termikoa nahiz klimatizazio- eta argizatze-instalazioak aztertu behar dira.



Ingurutzaille termikoa: Eraikuntza-elementuek (estalkia, hormak, lurzoruak, leihoak...) osatzen dute, bizi daitekeen eremuak eta kanpoaldea bereizten dituztenek, baita bizi daitekeen eta bizi ezin den eremuak bereizten dituzten barne-zatiek ere, azken horiek kanpoaldearekin kontaktuan egonda.

Ingurutzaille osoaren ezaugarriak aztertzen dira, honako hauek aintzat hartuta: eraikitze-materialak, isolamendua, zubi termikoak, orientazioa, itzalak eta neurriak.

Instalazioak: Honako elementu hauek aztertzen dira:

- Galdarak: Bi ekipo, guztira 8.120 kW-eko potentzia dutenak. Ospitaleko azal erabilgarri berotu osoa 93.697 m²-koa da (11 futbol-zelai baino handiagoa)
- Hozkailuak: 13; hozkailu-potentzia 6.750 kW-ekoa da, eta azalera erabilgarri hoztua 38.117 m²-koa (azalera berotuaren % 41)
- Ekipo zatituak (239) eta fan-coilak (46), aire

girotuko tokiko ekipoak.

- Klimatizagailuak: 97 ekipo, bultzatzeko eta itzulerako haizagailuak barne, 1 milioi m³ aire primario klimatizatzen dutenak orduan.
- Ponpatze-sistemak: 130 ekipo, guztira 715 kW-eko potentzia dutenak
- Argizatze-ekipoak. Ospitalean 200 lanpara-mota daude instalatua, goritasun-teknologiakoak, fluoreszenteak, halogenoak, LEDak, eta hainbat potentzia eta elektronikakoak.
- Honako elementu hauek osatzen duten kogenerazio-planta: 2 errektuzako motor, 1.457 eta 2.000 kW-ekoak; eta horiei dagozkien gasak berreskuratzeko galdarak, urtean 23.689.181 kWh elektriko eta 15.746.000 kWh termiko berreskuratzen dituztenak



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES ESI
OSI EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES